



“Album ilustratuen baso sorginduan barrena”

Galtzagorri Elkartek 2005etik martxan duen Haur eta Gazte Literatur arloko Irakurketa Mintegiaren barruan, urtero-urtero tailer zein hitzaldi bat eskaintzen die parte-hartzaileei eta interesa duen edonori. Aurten, **Album ilustratuen** inguruko tailerra eskainiko du Karla Fernández de Gamboa adituak.

Album ilustratuen baso sorginduan barrena saioak bitartekarietara haur eta gazteei eskainiko dizkieten album ilustratuak aukeratzeko irizpide-sorta emateko xedea du. Izan ere, azken urteetan albumak haur eta gazte literatura merkatuko izarrak dira eta, argitaratzen diren guztien artean, ezinbestekoa da bitartekariaren eskuetan hautaketa egiteko erremintak jartzea, kalitatezko lanak aukera ditzaten betiere. Albumek badute dohain berezi bat, hain justu heziketa literarioaren bidean oso lagungarriak direla esanahiz beteta daudelako eta esanahi horiek denak hitzen eta irudien ezkontzaren bitartez jasotzen dituelako irakurleak.

METODOLOGIA:

Kalitatezko lanak aukeratzeko irizpideak finkatuko ditu Fernández de Gamboak, kalitatezko album ilustratuek eskaintzen dituzten aukerez hitz egingo du tailerrean. Albumek haurren, gazteen eta helduen zentzumenei dei egiten diete zuzenean. Albumetan hitzak eta irudiak elkar osatzen dira eta bakoitzak bere aldetik ere funtziona dezake. Albumekin egin daitezkeen lanketak eta estrategiak transmitituko dizkie adituak saioan parte hartzen dutenei eta hori guztia album-sorta zabal batez lagunduta egingo du.

NORENTZAT:

Haur eta gazteen heziketa literarioa lantzen dutenei eta irakurzaletasuna sustatzeko kezka eta interesa duen edozein bitartekarirentzat: irakasle, bibliotekari, guraso, hezitzaile, dinamizatzaile, sortzaile, ikerlari eta irakurle, besteren artean.

NON: Donostiako San Telmo museoan. Ekitaldi aretoan: Zuloaga plaza, 1, 20003, Donostia.

NOIZ: Azaroaren 28an, 9:30etatik 13:30etara. Ordu erdiko atseden bat egingo da.



IZEN-EMATEA: Izen-emate orria beteta eta diru-sarrera egin izanaren ziurtagiria bidali behar dira **azaroaren 20a** baino lehen administrazioa@galtzagorri.eus helbidera.

Gehienez 25 ikaslek parte har dezakete. Onarpena izen-ematearen arabera egingo da.

- Galtzagorriko mintegiko kideentzat doan.
- Galtzagorriko bazkideak: 40 euro.
- Ez-bazkideak: 60 euro.

IRAKASLEA:



Karla Fernández de Gamboa Euskal Herriko Unibertsitatean Haur Hezkuntzan diplomatua eta Lehen Hezkuntzan graduatua da, ondoren egin zuen Màster Interunibertsitari en Biblioteca Escolar i Promoció de la Lectura (UAB eta UB), en Recerca en Didàctica de la Llengua i la Literatura (UAB) eta en Llibres i Literatura Infantil i Juvenil (UAB eta el Banco del Libro de Venezuela). Hezkuntzan (Hizkuntzaren eta Haur eta Gazte Literaturaren Didaktika) nazioarteko doktore (UAB) *A través del nuevo milenio y lo que el lector literario encontró allí: La narrativa infantil para lectores de 8 a 10* (2018) tesiarekin.

Egun, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean egiten du lan. LAIDA ikerketa-taldeko kidea da, UABeko GRETEL ikerketa-taldeko kolaboratzailea da eta *Behinola*, Galtzagorriko Haur eta Gazte Literatura Aldizkariaren erredakzio batzordeko partaidea ere bada.



ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:

